

“Aspertuta nago euren ahotsa soilik entzutea gustatzen zaien aurkezleekin”

Estitxu Fernandez | Tüpi-Ttapako aurkezle ohia

Garbi omen dauka gustura bizitzeko zer behar duen. Hala izango da. Nekez esango baitu gezurrik Estitxuk. Hitzek esaten dutena eskuek baieztatzen baitiote beti.

SUSTRAI COLINA
Argazkia: Dani Blanco

Psikologoa izan bazina aberastuko zinen honezkerok!
Solastu gintezke bihotzeko ezker bentrikuloko ultzera ttiki horri buruz inongo larritasunik gabe, dena dakigu. Min emozional eta afektiboek buruz, aldiz...

Euskaldunak garela ahantzi duzu, ala?

Psikologia, sexualitatea... Hori da bizitza. Informazioa ematen da, baina ez da formatzen, ez da jarretan eragiten. Eta jarrerak portaeraren ataria dira.

Sorginen Laratzako portaerak, jarrerak...

Kritikek beti egiten dute min, batez ere, ez direlarik desberdintzen kritika pertsonalak eta kritika profesionalak. *Sorginen Laratzak* antz eman dit. Min handiak baina poztasun eta oinarri handiak ere bai.

Beti irribarretsu ageri zara, ordea.

Harreman gatazkatsua dut telebistarekin. Ez zait dena gustatzen. Niri kamera aitzinekoa gustatzen zait, komunikazioa. Horregatik jarraitzen dut. Baina bada alde ilun bat geroz eta pisu handiagoa duena.

Telebistan ez al da dena glamurosoa?

Denbora guztian bertzeek begira lan egitea hagitz nekagarria da. Ez nago niri begira, jendeak zer erranen bizi naiz. Noiz da barrura begiratzeko tenorea? Ni nolako naiz? Zer nahi dut? Nola jantzen naiz? Zer moduz nago?

Zer moduz zeunden langabezia?

Telebistan hasi nintzelarik erabat ezegonkorra zela ikusi nuen. Banekien bukatu zitekeela, lanik gabe gelditu nintekeela, eta ez nuela edozein programatan lan egingen. Orduan, nire erabaki bat izan zen.

Telebistan ezetz esan daiteke?!

Orain ari naiz ikasten ezetz maiuskulaz erraten. Orain artean beti erran dut ezetz letra ttikiz. Orain ari naiz nire bidea markatzen, lehen beraiek markatzen zidaten.

Ziur hori dela pantailan irauteko bidea?

Ez da erraza. Beti gauza berriak eskatzen dituzte, jende gaztea, jende polita. Geroz eta helduagoak gara, ez horren politikak. Ni saiutzen naiz gozatzen, eta nire lana ahalik eta hobekien egiten baina...

Telebista telebista da.

Ezin diogu jendeak nahi duenari uko egin eta antitelebista bat egin. ETBk bere nortasuna atzeman behar du baina telebista eginez.

Eta komunikatuz...

Aspertuta nago euren ahotsa soilik entzutea gustatzen zaien aurkezleekin. Penagarria da. Lehenik entzuten ikasi behar da, komunikazio dohaiak garatu, arreta jarri, interesa eduki gertatzen den guztiarekiko... Hor hasten da komunikazioa. ■